	Atzerria	60.712	77.261	87.368
GUZTIRA		340.542	350.667	354.270

Iturria: SIADECOk landua

**(e) Azken urratsean, euskararen etxeko erabilerari jarraiki eraikitako udalerrien sailkapenaren araberako biztanleria-proiekzioak egin dira:**

- 2021eko biztanleria oinarri hartuta, lurralteko bakoitzean, adin-tartea eta jatorriaren arabera sailkatutako biztanle-multzoa euskararen etxeko erabilera mailari jarraiki sailkatutako udalerrien biztanleriaren arabera nola banatzen den kalkulatu da; horrela, adibidez, Gipuzkoako 2021eko datuetan, 2-4 urte bitarteko haur guztietatik zenbat diren nagusitasun-eremu bakoitzekoak kalkulatu da, ehunekotan; eta berdin, gainerako adin-tarte guztiekin. Modu horretara, lurralteko bakoitzean, adin-tartea eta jatorriari jarraiki sailkatutako biztanle-multzo bakoitzaren, nagusitasun-eremuaren araberako banaketaren ehunekoak kalkulatu dira. 1991tik 2021era, udalerrien bilakaera demografikoan ez dagoela nagusitasun-eremuaren araberako diferentzia nabarmenik ikusi da, hau da, nagusitasun-eremu bakoitzeko udalerriak hartuta, multzo batetik bestera ez dago biztanleriaren igoera edo jaitsierari dagokion joera ezberdin nabarmenik. Horrela, nagusitasun-eremuaren araberako biztanleria proiekzioak egiteko erabilitako hipotesia da, 2021eko etxeko erabileraren datuak erabiliz sailkatutako nagusitasun-eremuaren araberako udalerri multzo horiek ez dutela aldaketarik izango pisu demografikoan. Bost nagusitasun-eremuak dira:

LEHEN NAGUSITASUN EREMUA	BIGARREN NAGUSITASUN EREMUA	HIRUGARREN NAGUSITASUN EREMUA	LAUGARREN NAGUSITASUN EREMUA	BOSCARREN NAGUSITASUN EREMUA
Erdararen nagusitasuna handia den udalerriak, euskararen etxeko erabileraren ehuneko 20 baino baxuagoa izanda; ehuneko hori "euskara bakarrik" ehunekoari, "biak", hau da, "euskara eta gaztelania" ehunekoaren erdia batuta kalkulatutakoa izanik	Erdararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak, euskararen etxeko erabileraren ehuneko %20 eta %39,9 artean	Euskararen nagusitasun argirik gabeko udalerriak, etxeko erabileraren indizea, %40 eta %59,9 artean	Arnasgune erasanak, euskararen nagusitasuna erabatekoa ez den udalerriak, etxeko erabiera, %60 eta 79,9 artean	Arnasgune beteak, euskararen nagusitasuna handia den udalerriak, etxeko erabiera, %80 edo gehiago

**4 | 2026, 2031 eta 2036rako aurreikusitako demografia-datuei, 2021eko biztanleriaren nagusitasun-eremuaren araberako banaketaren koefizienteak aplikatu:** aurrez adierazitako hipotesiari jarraiki, 2021eko biztanleriaren nagusitasun-eremuaren araberako ehunekoak egonkor mantendu dira 2036 urtera arte, biztanleria-proiekzioak egiteko, lurraldea (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa), nagusitasun-eremu (bost nagusitasun-eremu), adin-tartea (16 adin-tarte) eta jatorriaren arabera (erkidegoa, beste erkidegoa eta atzerria). Lau aldagai horiek batera konbinatuz sortzen den biztanleria-multzoari, estratu deituko diogu aurrerantzean.

Aurrez azaldutako urrats metodologikoak jarraituz eta hipotesiak oinarri hartuta, lehen fase honetan, estratu horietako bakoitzak zenbat biztanle izango dituen aurreikusi da; horrela egin dira biztanleria-proiekzioak, 2026rako, 2031rako eta 2036rako.

# 02

## Hizkuntza-koefizienteen proiekzioa

Bigarren fasean, proiekzio demolinguistikoak egiteko aplikatu beharreko hizkuntza-koefizienteak kalkulatu dira, hurrengo prozedura jarraituta:

**1 | Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuko datuekin, hizkuntza-adierazleen azterketa egitea eskatu zaie EUSTAT-i, EAekoena, eta NASTAT-i, Nafarrokoena.** 2 urtez gorako biztanleriaren hizkuntza-ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko erabileraren araberako kopuru absolutuak eskuratu ditugu, honela sailkatuta: lurraldea, nagusitasun-eremua, adin-tartea (bosturteko 16 adin-tarte) eta jatorria (erkidegoa, beste erkidegoak eta atzerria); 1991tik 2021era, 7 edizioetako datuak. Nafarroan, eskuratu ahal izan den informazioa mugatuagoa izan da; adin-multzo zabalagoak hartuta egin du NASTATek analisia (2-14 urte, 15-24, 25-44, 45-64 eta 65 edo gehiago) eta edizio horietako zenbaitetako lehen hizkuntza eta etxeko erabilerari buruzko informaziorik ere ez du NASTAT-ek. Deigarriena, 2021eko datu linguistikoetan dagoen hutsunea da, urte horretan, hizkuntza-ezagutzaren datuak soilik eskuratu ahal izan ditugulako. Horrela, Nafarroan, lehen hizkuntza eta etxeko erabileraren etorkizuneko proiekzioak egiteko, 2011ko datuetatik abiatu behar izan da.

**2 | Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuko datu linguistikoen bilakaeraren azterketa egin:**

- Lehen ondorio nagusia da, hizkuntza-koefizienteen bilakaera konstanteagoa dela 10 urteko tarteak hartuta (1991, 2001, 2011 eta 2021), 5 urteko tarteak hartuta baino. Izañ ere, euskara-koefizienteen bilakaera nabarmen positiboagoa da hiru hamarkadetako bakoitzaren lehen erdian: 1991tik 1996ra, 2001etik 2006ra eta 2011tik 2016ra. Aldiz, hamarkada bakoitzaren bigarren erdian, euskara-indizeen igoerak apalagoak dira. Beraz, aurreikuspen demografikoetarako koefizienteak kalkulatzeko, ikusi dugu egokiena dela 4 ediziotako datuekin lan egitea, hau da, 1991, 2001, 2011 eta 2021 izatea, azken 30 urteetako hizkuntza-koefizienteen bilakaera aztertzeko erreferentzia-urteak.
- Hizkuntza-ezagutzaren, lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraren kopuru absolutuen eta ehunekoak azken 30 urteetako bilakaeraren analisia egin da, hurrengo aldagaiak gurutzatuta:
  - Adina.**16 adin-tarte: hiru urtekoa lehena (2-4 urte), bostekoak hurrengoak (4-9 urte, 10-14 urte...) eta 75 urte edo gehiagokoena azkena. Nafarroako datu demolinguistikoen azterketa, 5 adin-multzo zabalagoen arabera egin da (2-14 urte, 15-24 urte, 25-44 urte, 45-64 urte eta 65 urte edo gehiago ).

- Jatorria.** Hiru multzo: bizitoki duten erkidegoan bertan jaiotakoak, Spainiako beste erkidegoren batean jaiotakoak eta Spainiatik kanpo atzerrian jaiotakoak. Hegoalde osoan, bai EAEn bai Nafarroan, “erkidegoa”/”beste erkidegoak” banaketa erabili da, estatistika erakunde ofizialek eskuarki erabili ohi dituzten banaketa irizpideei jarraituta. Horrela, kontuan hartu behar da EUSTAT eta NASTAT-ek emandako jatorriaren araberako datuetan ez dela Hego Euskal Herriari dagokion lurrarde-eremua kontua hartzen; horrela, “beste erkidegoetan” kategorian sailkatutako bai EAEn bai Nafarroako biztanle-multzoetan, Hego Euskal Herrian eta Hego Euskal Herritik kanpo jaiotakoak batera daude.
- 1991ko nagusitasun-eremuaren arabera.** Bost eremu, udalerriak euskararen etxeko erabileraren 1991ko indizearen arabera sailkatuta, eta udalerriak, 1991tik 2021era, beti multzo berean mantenduta. Horrela, 1991ko nagusitasun-eremuari eutsita, udalerri horiek 1991tik 2021era zer bilakaera izan duten aztertu da, demografikoki eta linguistikoki.
- 2021eko nagusitasun-eremuaren arabera.** Udalerrak sailkatzeko irizpide berak erabilita, baina 2021eko datuekin, hau da, udalerri bakoitzak 2021ean zituen etxeko erabileraren ehunekoak erabilita. Sailkapen hau erabili da gero, etorkizuneko proiekzio demolingüistikoak egiteko. Nafarroaren kasuan, etxeko erabileraren azken datuak 2011koak izanda, 2011ko datuetatik abiatuta egin dira nagusitasun-eremuen araberako proiekzioak.

### 3 | Adin-tarte bakoitzeko hizkuntza-koefizienteen bilakaera zein izan den aztertu, bi modutara:

- Horizontalean: azterketa horizontalak erakusten du, 1991tik 2021era, hamar urtetik hamar urtera, lau edizioetako bakoitzean, zenbatekoak izan diren adin-tarte bereko biztanleriaren igoera-jaitsierak kopuru absolutuetan, eta zenbatekoak izan diren hizkuntza-koefizienteen igoera-jaitsierak ehunekoan. Hurrengo tauletan, adibidez, bi urte edo gehiagoko EAEn biztanleriaren bilakaeraren datuak erakusten dira, adin-tarteari eta jatorriari jarraiki, lehendabizikoan biztanleriaren datu absolutuak, eta bigarrenean, biztanleria euskaldunaren kopuru erlatiboak.

## Adibidea

**30. taula.** Lehena: EAEko biztanleriaren bilakaera 1991tik 2021era, adin-tarteari eta jatorriari jarriki

Adin-tartea	Jatorria	Biztanleria 91	Biztanleria 01	Biztanleria 11	Biztanleria 21
2-4	Erkidegoa	52.024	46.152	59.405	48.929
2-4	Beste erkidegoak	1.675	895	1.974	1.207
2-4	Atzerria	372	1.242	2.071	2.283
2-4 Guztira		54.071	48.289	63.450	52.419
5-9	Erkidegoa	108.609	73.874	89.360	93.138
5-9	Beste erkidegoak	4.422	2.100	2.771	3.579
5-9	Atzerria	901	1.995	7.126	5.732
5-9 Guztira		113.932	77.969	99.257	102.449
10-14	Erkidegoa	151.686	82.259	76.938	97.056
10-14	Beste erkidegoak	6.610	2.859	2.138	4.962
10-14	Atzerria	1.152	2.165	10.043	7.221
10-14 Guztira		159.448	87.283	89.119	109.239
15-19	Erkidegoa	168.001	107.428	72.535	88.547
15-19	Beste erkidegoak	10.134	4.387	2.392	3.547
15-19	Atzerria	2.203	2.701	11.489	13.455
15-19 Guztira		180.338	114.516	86.416	105.549
20-24	Erkidegoa	156.831	147.945	79.886	75.829
20-24	Beste erkidegoak	16.499	7.239	3.870	3.265
20-24	Atzerria	2.986	4.614	17.511	21.274
20-24 Guztira		176.316	159.798	101.267	100.368
25-29	Erkidegoa	141.960	157.590	99.962	67.733
25-29	Beste erkidegoak	29.430	11.842	7.554	5.566
25-29	Atzerria	3.235	6.709	25.609	25.851
25-29 Guztira		174.625	176.141	133.125	99.150
30-34	Erkidegoa	116.331	144.288	134.348	72.649
30-34	Beste erkidegoak	46.435	18.178	10.960	7.529
30-34	Atzerria	2.798	7.135	28.140	29.387
30-34 Guztira		165.564	169.601	173.448	109.565
35-39	Erkidegoa	83.792	134.503	146.019	93.133
35-39	Beste erkidegoak	60.811	29.972	13.514	10.121
35-39	Atzerria	2.460	6.282	23.788	31.647
35-39 Guztira		147.063	170.757	183.321	134.901
40-44	Erkidegoa	75.504	113.545	137.886	129.236
40-44	Beste erkidegoak	68.573	45.150	18.014	12.178
40-44	Atzerria	1.798	4.450	18.981	30.764
40-44 Guztira		145.875	163.145	174.881	172.178
45-49	Erkidegoa	62.800	81.752	129.929	141.905
45-49	Beste erkidegoak	66.169	59.247	28.528	13.894
45-49	Atzerria	1.219	3.271	13.550	24.712
45-49 Guztira		130.188	144.270	172.007	180.511
50-54	Erkidegoa	51.651	73.184	109.720	134.318
50-54	Beste erkidegoak	61.037	66.185	42.825	17.770
50-54	Atzerria	1.295	2.073	9.234	19.183
50-54 Guztira		113.983	141.442	161.779	171.271
55-59	Erkidegoa	65.177	59.748	78.060	125.804
55-59	Beste erkidegoak	64.091	61.992	55.244	27.684
55-59	Atzerria	962	1.414	5.935	13.541
55-59 Guztira		130.230	123.154	139.239	167.029

Adin-tartea	Jatorria	Biztanleria 91	Biztanleria 01	Biztanleria 11	Biztanleria 21
60-64	Erkidegoa	64.514	47.877	68.758	104.711
60-64	Beste erkidegoak	50.366	54.125	59.987	40.988
60-64	Atzerria	1.087	1.316	3.329	8.740
60-64 Guztira		115.967	103.318	132.074	154.439
Adin-tartea	Jatorria	Biztanleria 91	Biztanleria 01	Biztanleria 11	Biztanleria 21
65-69	Erkidegoa	55.771	58.781	54.844	72.950
65-69	Beste erkidegoak	36.004	54.448	53.989	51.243
65-69	Atzerria	879	854	1.958	5.551
65-69 Guztira		92.654	114.083	110.791	129.744
70-74	Erkidegoa	39.989	54.788	42.059	62.332
70-74	Beste erkidegoak	23.312	41.101	45.756	54.274
70-74	Atzerria	683	913	1.622	3.045
70-74 Guztira		63.984	96.802	89.437	119.651
>=75	Erkidegoa	64.734	86.381	115.584	127.011
>=75	Beste erkidegoak	38.779	54.783	92.115	123.743
>=75	Atzerria	1.176	1.515	2.276	3.904
>=75 Guztira		104.689	142.679	209.975	254.658
	Erkidegoa	1.459.374	1.470.095	1.495.293	1.535.281
	Beste erkidegoak	584.347	514.503	441.631	381.550
	Atzerria	25.206	48.649	182.662	246.290
	<b>OROKORRA</b>	<b>2.068.927</b>	<b>2.033.247</b>	<b>2.119.586</b>	<b>2.163.121</b>

Iturria: EUSTAT 1991-2021; Siadecok landua

## Adibidea

**31. taula.** Bigarrena: EAEko biztanleria euskaldunaren ehunekoaren bilakaera 1991tik 2021era, adin tarteari eta jatorriari jarriki

Adin-tartea	Jatorria	Euskaldunak 91	Euskaldunak 01	Euskaldunak 11	Euskaldunak21
2-4	Erkidegoa	22,0	37,3	64,4	74,9
2-4	Beste erkidegoak	9,0	23,6	49,3	61,6
2-4	Atzerria	15,3	19,6	48,4	66,8
2-4 Guztira		21,5	36,6	63,4	74,3
5-9	Erkidegoa	41,7	67,9	81,1	82,1
5-9	Beste erkidegoak	18,4	37,2	62,0	67,0
5-9	Atzerria	30,3	24,2	59,8	71,2
5-9 Guztira		40,7	65,9	79,1	81,0
10-14	Erkidegoa	38,2	67,6	88,1	92,1
10-14	Beste erkidegoak	18,9	40,6	62,1	80,1
10-14	Atzerria	27,2	21,7	56,9	75,2
10-14 Guztira		37,3	65,5	84,0	90,5
15-19	Erkidegoa	31,0	58,3	82,4	93,1
15-19	Beste erkidegoak	11,2	29,2	43,8	69,7
15-19	Atzerria	15,7	18,9	21,6	56,7
15-19 Guztira		29,7	56,3	73,3	87,6
20-24	Erkidegoa	27,5	46,6	69,7	90,1
20-24	Beste erkidegoak	5,5	20,6	29,5	44,8
20-24	Atzerria	9,8	11,2	9,9	24,7
20-24 Guztira		25,1	44,4	57,8	74,8
25-29	Erkidegoa	28,8	37,1	58,4	83,0
25-29	Beste erkidegoak	5,0	12,4	18,9	23,1
25-29	Atzerria	10,5	9,7	8,5	9,3
25-29 Guztira		24,5	34,4	46,5	60,4
30-34	Erkidegoa	30,2	31,6	47,0	71,5
30-34	Beste erkidegoak	4,3	8,0	15,1	19,5
30-34	Atzerria	8,4	7,3	7,4	4,4
30-34 Guztira		22,6	28,0	38,6	49,9
35-39	Erkidegoa	33,6	31,5	38,1	61,5
35-39	Beste erkidegoak	3,4	6,8	11,7	16,7
35-39	Atzerria	7,4	8,4	7,6	3,7
35-39 Guztira		20,7	26,3	32,2	44,6
40-44	Erkidegoa	37,6	32,6	33,7	48,7
40-44	Beste erkidegoak	2,7	5,8	8,7	16,2
40-44	Atzerria	5,6	8,1	7,9	3,6
40-44 Guztira		20,8	24,5	28,3	38,4
45-49	Erkidegoa	39,3	35,4	33,1	40,6
45-49	Beste erkidegoak	2,4	4,2	8,0	13,8
45-49	Atzerria	5,0	7,7	8,0	3,6
45-49 Guztira		20,2	21,9	26,9	33,5
50-54	Erkidegoa	42,6	38,5	33,0	35,2
50-54	Beste erkidegoak	2,5	3,1	6,4	10,0
50-54	Atzerria	10,3	5,8	7,8	3,4
50-54 Guztira		20,8	21,5	24,5	29,0
55-59	Erkidegoa	42,3	40,2	34,6	34,5
55-59	Beste erkidegoak	2,5	2,4	4,4	9,0
55-59	Atzerria	5,6	5,4	7,3	4,2
55-59 Guztira		22,4	20,8	21,5	27,8
60-64	Erkidegoa	43,0	43,3	37,3	34,5
60-64	Beste erkidegoak	2,7	2,6	3,2	6,5
60-64	Atzerria	7,3	8,4	6,8	5,5
60-64 Guztira		25,1	21,5	21,1	25,4

Adin-tartea	Jatorria	Euskaldunak 91	Euskaldunak 01	Euskaldunak 11	Euskaldunak21
65-69	Erkidegoa	44,0	43,1	38,8	36,1
65-69	Beste erkidegoak	3,2	2,4	2,5	4,7
65-69	Atzerria	8,2	4,2	5,9	4,5
65-69 Guztira		27,8	23,4	20,5	22,3
70-74	Erkidegoa	46,8	43,2	41,9	38,9
70-74	Beste erkidegoak	3,9	2,6	2,6	3,7
70-74	Atzerria	13,9	5,5	10,4	5,7
70-74 Guztira		30,8	25,6	21,3	22,1
>=75	Erkidegoa	48,8	45,3	42,0	41,9
>=75	Beste erkidegoak	4,4	3,4	2,6	2,2
>=75	Atzerria	15,6	8,8	8,0	5,6
>=75 Guztira		32,0	28,8	24,4	22,1
	Erkidegoa	35,6	42,7	49,3	56,7
	Beste erkidegoak	3,7	4,7	6,1	8,8
	Atzerria	11,2	10,4	14,1	13,5
	<b>OROKORRA</b>	26,3	32,3	37,2	43,3

*Iturria: EUSTAT 1991-2021; Siadecok landua*

- Diagonalean: 1991tik 2021era, hamar urtetik hamar urtera, adin-tarte bateko biztanleria-multzoa bi adin-tarte beherago kokatuz — adibidez, 1991 urtean 5-9 urteko adin-tartean zeudenak, 2001ean 15-19koan zeuden, 2011n 25-29koan eta 2021ean 35-39koan—, biztanle kopurua zenbateraino mantendu edo aldatu den erakusten du; baita hizkuntza-koefizienteen bilakaera zein izan den ere. Hau da, zein mailatan aldatu diren, edo ez, adinean gora doan biztanle-multzo berari dagozkion hizkuntza-koefizienteak.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da begirada diagonalak ere badituela bere mugak eta ñabardurak. Jaiotza-heriotzen eta migrazio-fluxuen eraginez, adin-tarte bateko biztanleen zati bat aldatu egin daiteke: 10 urtetan gertatutako jaiotza-heriotza eta migrazio-mugimenduen arabera, 10 urte lehenago ez zeuden biztanle “berriak” irabazi eta “zaharrak” galdu egingo dira.

## Adibidea

**32. taula.** EAEko biztanleriaren adin-kohorteen mugimendu diagonalaren araberako bilakaera, koloreen bitartez adierazia

Adin-tartea	Jatorria	Biztanleria 91	Biztanleria 01	Biztanleria 11	Biztanleria 21
2-4	Erkidegoa	52.024	46.152	59.405	48.929
2-4	Beste erkidegoak	1.675	895	1.974	1.207
2-4	Atzerria	372	1.242	2.071	2.283
<b>2-4 Guztira</b>		<b>54.071</b>	<b>48.289</b>	<b>63.450</b>	<b>52.419</b>
5-9	Erkidegoa	108.609	73.874	89.360	93.138
5-9	Beste erkidegoak	4.422	2.100	2.771	3.579
5-9	Atzerria	901	1.995	7.126	5.732
<b>5-9 Guztira</b>		<b>113.932</b>	<b>77.969</b>	<b>99.257</b>	<b>102.449</b>
10-14	Erkidegoa	151.686	82.259	76.938	97.056
10-14	Beste erkidegoak	6.610	2.859	2.138	4.962
10-14	Atzerria	1.152	2.165	10.043	7.221
<b>10-14 Guztira</b>		<b>159.448</b>	<b>87.283</b>	<b>89.119</b>	<b>109.239</b>
15-19	Erkidegoa	168.001	107.428	72.535	88.547
15-19	Beste erkidegoak	10.134	4.387	2.392	3.547
15-19	Atzerria	2.203	2.701	11.489	13.455
<b>15-19 Guztira</b>		<b>180.338</b>	<b>114.516</b>	<b>86.416</b>	<b>105.549</b>
20-24	Erkidegoa	156.831	147.945	79.886	75.829
20-24	Beste erkidegoak	16.499	7.239	3.870	3.265
20-24	Atzerria	2.986	4.614	17.511	21.274
<b>20-24 Guztira</b>		<b>176.316</b>	<b>159.798</b>	<b>101.267</b>	<b>100.368</b>
25-29	Erkidegoa	141.960	157.590	99.962	67.733
25-29	Beste erkidegoak	29.430	11.842	7.554	5.566
25-29	Atzerria	3.235	6.709	25.609	25.851
<b>25-29 Guztira</b>		<b>174.625</b>	<b>176.141</b>	<b>133.125</b>	<b>99.150</b>
30-34	Erkidegoa	116.331	144.288	134.348	72.649
30-34	Beste erkidegoak	46.435	18.178	10.960	7.529
30-34	Atzerria	2.798	7.135	28.140	29.387
<b>30-34 Guztira</b>		<b>165.564</b>	<b>169.601</b>	<b>173.448</b>	<b>109.565</b>
35-39	Erkidegoa	83.792	134.503	146.019	93.133
35-39	Beste erkidegoak	60.811	29.972	13.514	10.121
35-39	Atzerria	2.460	6.282	23.788	31.647
<b>35-39 Guztira</b>		<b>147.063</b>	<b>170.757</b>	<b>183.321</b>	<b>134.901</b>
40-44	Erkidegoa	75.504	113.545	137.886	129.236
40-44	Beste erkidegoak	68.573	45.150	18.014	12.178
40-44	Atzerria	1.798	4.450	18.981	30.764
<b>40-44 Guztira</b>		<b>145.875</b>	<b>163.145</b>	<b>174.881</b>	<b>172.178</b>
45-49	Erkidegoa	62.800	81.752	129.929	141.905
45-49	Beste erkidegoak	66.169	59.247	28.528	13.894
45-49	Atzerria	1.219	3.271	13.550	24.712
<b>45-49 Guztira</b>		<b>130.188</b>	<b>144.270</b>	<b>172.007</b>	<b>180.511</b>

Adin_tartea	Jatorria	Biztanleria 91	Biztanleria 01	Biztanleria 11	Biztanleria 21
50-54	Erkidegoa	51.651	73.184	109.720	134.318
50-54	Beste erkidegoak	61.037	66.185	42.825	17.770
50-54	Atzerria	1.295	2.073	9.234	19.183
50-54 Guztira		113.983	141.442	161.779	171.271
55-59	Erkidegoa	65.177	59.748	78.060	125.804
55-59	Beste erkidegoak	64.091	61.992	55.244	27.684
55-59	Atzerria	962	1.414	5.935	13.541
55-59 Guztira		130.230	123.154	139.239	167.029
60-64	Erkidegoa	64.514	47.877	68.758	104.711
60-64	Beste erkidegoak	50.366	54.125	59.987	40.988
60-64	Atzerria	1.087	1.316	3.329	8.740
60-64 Guztira		115.967	103.318	132.074	154.439
65-69	Erkidegoa	55.771	58.781	54.844	72.950
65-69	Beste erkidegoak	36.004	54.448	53.989	51.243
65-69	Atzerria	879	854	1.958	5.551
65-69 Guztira		92.654	114.083	110.791	129.744
70-74	Erkidegoa	39.989	54.788	42.059	62.332
70-74	Beste erkidegoak	23.312	41.101	45.756	54.274
70-74	Atzerria	683	913	1.622	3.045
70-74 Guztira		63.984	96.802	89.437	119.651
>=75	Erkidegoa	64.734	86.381	115.584	127.011
>=75	Beste erkidegoak	38.779	54.783	92.115	123.743
>=75	Atzerria	1.176	1.515	2.276	3.904
>=75 Guztira		104.689	142.679	209.975	254.658

Iturria: EUSTAT 1991-2021; Siadecok landua

## Adibidea

**33. taula.** EAEko biztanleriaren euskararen ezagutzaren ehunekoen adin-kohorteen mugimendu diagonalaren araberako bilakaera, koloreen bitartez adierazita.

Adin-tartea	Jatorria	Euskaldunak 91	Euskaldunak 01	Euskaldunak 11	Euskaldunak21
2-4	Erkidegoa	22,0	37,3	64,4	74,9
2-4	Beste erkidegoak	9,0	23,6	49,3	61,6
2-4	Atzerria	15,3	19,6	48,4	66,8
<b>2-4 Guztira</b>		<b>21,5</b>	<b>36,6</b>	<b>63,4</b>	<b>74,3</b>
5-9	Erkidegoa	41,7	67,9	81,1	82,1
5-9	Beste erkidegoak	18,4	37,2	62,0	67,0
5-9	Atzerria	30,3	24,2	59,8	71,2
<b>5-9 Guztira</b>		<b>40,7</b>	<b>65,9</b>	<b>79,1</b>	<b>81,0</b>
10-14	Erkidegoa	38,2	67,6	88,1	92,1
10-14	Beste erkidegoak	18,9	40,6	62,1	80,1
10-14	Atzerria	27,2	21,7	56,9	75,2
<b>10-14 Guztira</b>		<b>37,3</b>	<b>65,5</b>	<b>84,0</b>	<b>90,5</b>
15-19	Erkidegoa	31,0	58,3	82,4	93,1
15-19	Beste erkidegoak	11,2	29,2	43,8	69,7
15-19	Atzerria	15,7	18,9	21,6	56,7
<b>15-19 Guztira</b>		<b>29,7</b>	<b>56,3</b>	<b>73,3</b>	<b>87,6</b>
20-24	Erkidegoa	27,5	46,6	69,7	90,1
20-24	Beste erkidegoak	5,5	20,6	29,5	44,8
20-24	Atzerria	9,8	11,2	9,9	24,7
<b>20-24 Guztira</b>		<b>25,1</b>	<b>44,4</b>	<b>57,8</b>	<b>74,8</b>
25-29	Erkidegoa	28,8	37,1	58,4	83,0
25-29	Beste erkidegoak	5,0	12,4	18,9	23,1
25-29	Atzerria	10,5	9,7	8,5	9,3
<b>25-29 Guztira</b>		<b>24,5</b>	<b>34,4</b>	<b>46,5</b>	<b>60,4</b>
30-34	Erkidegoa	30,2	31,6	47,0	71,5
30-34	Beste erkidegoak	4,3	8,0	15,1	19,5
30-34	Atzerria	8,4	7,3	7,4	4,4
<b>30-34 Guztira</b>		<b>22,6</b>	<b>28,0</b>	<b>38,6</b>	<b>49,9</b>
35-39	Erkidegoa	33,6	31,5	38,1	61,5
35-39	Beste erkidegoak	3,4	6,8	11,7	16,7
35-39	Atzerria	7,4	8,4	7,6	3,7
<b>35-39 Guztira</b>		<b>20,7</b>	<b>26,3</b>	<b>32,2</b>	<b>44,6</b>
40-44	Erkidegoa	37,6	32,6	33,7	48,7
40-44	Beste erkidegoak	2,7	5,8	8,7	16,2
40-44	Atzerria	5,6	8,1	7,9	3,6
<b>40-44 Guztira</b>		<b>20,8</b>	<b>24,5</b>	<b>28,3</b>	<b>38,4</b>
45-49	Erkidegoa	39,3	35,4	33,1	40,6
45-49	Beste erkidegoak	2,4	4,2	8,0	13,8
45-49	Atzerria	5,0	7,7	8,0	3,6
<b>45-49 Guztira</b>		<b>20,2</b>	<b>21,9</b>	<b>26,9</b>	<b>33,5</b>

Adin-tartea	Jatorria	Euskaldunak 91	Euskaldunak 01	Euskaldunak 11	Euskaldunak21
50-54	Erkidegoa	42,6	38,5	33,0	35,2
50-54	Beste erkidegoak	2,5	3,1	6,4	10,0
50-54	Atzerria	10,3	5,8	7,8	3,4
50-54 Guztira		20,8	21,5	24,5	29,0
55-59	Erkidegoa	42,3	40,2	34,6	34,5
55-59	Beste erkidegoak	2,5	2,4	4,4	9,0
55-59	Atzerria	5,6	5,4	7,3	4,2
55-59 Guztira		22,4	20,8	21,5	27,8
60-64	Erkidegoa	43,0	43,3	37,3	34,5
60-64	Beste erkidegoak	2,7	2,6	3,2	6,5
60-64	Atzerria	7,3	8,4	6,8	5,5
60-64 Guztira		25,1	21,5	21,1	25,4
65-69	Erkidegoa	44,0	43,1	38,8	36,1
65-69	Beste erkidegoak	3,2	2,4	2,5	4,7
65-69	Atzerria	8,2	4,2	5,9	4,5
65-69 Guztira		27,8	23,4	20,5	22,3
70-74	Erkidegoa	46,8	43,2	41,9	38,9
70-74	Beste erkidegoak	3,9	2,6	2,6	3,7
70-74	Atzerria	13,9	5,5	10,4	5,7
70-74 Guztira		30,8	25,6	21,3	22,1
>=75	Erkidegoa	48,8	45,3	42,0	41,9
>=75	Beste erkidegoak	4,4	3,4	2,6	2,2
>=75	Atzerria	15,6	8,8	8,0	5,6
>=75 Guztira		32,0	28,8	24,4	22,1
Orokorra	Erkidegoa	35,6	42,7	49,3	56,7
Orokorra	Beste erkidegoak	3,7	4,7	6,1	8,8
Orokorra	Atzerria	11,2	10,4	14,1	13,5
Orokorra		26,3	32,3	37,2	43,3

*Iturria: EUSTAT 1991-2021; Siadecok landua*

**4 | Hizkuntza-koefizienteen etorkizuneko bilakaera aurreikusteko modurik fidagarriena zein izan daitekeen aztertu da gero**, hau da, bosturteko adin-tarte bakoitzaren hizkuntza-koefizienteen etorkizuneko proiekzioak nola egin behar diren, horizontalki, edo, adin-kohorte bereko multzoak diagonalean mugituta.

**Hizkuntza-koefizienteak horizontalean aztertuz:**

- Euskararen ezagutza-mailari dagokionez, edizio batetik bestera, jauzi handiak daude adin-tarte bereko hizkuntza-koefizienteetan, bai behinik behin EAEko datuetan: igoera handiak haurren eta gazteen artean —39 urtera artekoetan—, txikiagoak 40tik 64ra artekoetan, eta jaitsierak 65etik gorakoetan. Jatorriaren araberako datuetan ere alde handiak daude. Adibidez, EAEn, 1991tik 2021era, atzerrian jaiotakoentzat, 24 urtera arteko adin-tarteetan soilik da bilakaera positiboa; hortik gora, bilakaera negatiboa da.

□ Hizkuntza-koefizienteak diagonalean aztertuta:

- 19 urtera arteko adin-tarteetan, edizio batean adin-tarte batean zeudenen hizkuntza-koefizientea, hurrengo edizioan bi adin-tarte beherago daudenarekin alderatuz —2011ko 2-4 urtekoena 2021eko 10-14koenarekin etab.— aldeak handiak dira oro har, batez ere, 14 urtera arte; nagusiki hezkuntza-sistemako euskalazko hizkuntza-ereduen eraginez, nabarmen gora egiten dute euskaldunen ehunekoek adin-tarte horietan. Haur eta gazteenen adin-multzoetan, hizkuntza-koefizienteek diagonalean mugituz eta azken edizioetako joerak 2021eko zentsuko datuei aplikatuz kalkulatutako etorkizuneko hizkuntza-koefizienteak ez direla egokiak ikusi da, edizio batetik bestera igoera handiak daudelako, bai behinik behin EAEn eta hizkuntza-ezagutzaren ehunekoena; alde txikiagoak noski, Nafarroan, eta oro har, lehen hizkuntzaren eta etxeko erabileraen ehunekoetan.
- Aldiz, 20 urtetik gorako adin tarteetan, aldeak txikiak dira: edizio bakoitzeko datu errealaak aurreko edizioetako hamarkada bat, bi edo hirutako adin-tarteak mugituz lortutako datuekin alderatuz; 20 urtetik gorakoetan, hizkuntza-koefizienteen joerak mantendu egiten dira, jatorria ere kontuan hartzen bada.

Horrela, egiaztago da, 20 urtetik 75 urtera arteko adin-tarteetan, etorkizuneko hizkuntza-koefizienteen proiekzioa egiteko, diagonalean adin-tarteak mugituz lortzen diren koefizienteak direla adierazgarrienak, jatorriaren araberako bilakaera ezberdinaren datuak erabiliz egiten bada.

20 urtetik 75era arteko adin-tarteetan, 2021eko koefizienteetik abiatu gara, bost urte beranduago, 2026koak izango liratekeen koefizienteen aurreikuspena egiteko. Baino, horren aurretik, 2021era iritsi aurreko urteetan izandako bilakaeraren joera ezberdinen araberako igoera edo jaitsiera portzentualak aplikatu dira, erdira murriztuta, hau da, 10 urteetako bilakaeraren igoera/jaitsiera portzentualak, bosturteka egindako proiekziodatuetara aplikatzeko; lehenik 2026ra, hurrena 2031ra, eta azken urratsean, 2036ra. Edonola ere, ez da procedura bera jarraitu ez adin-kohorte guztiarako, ez lurralte eta nagusitasun-eremu guztiarako. Kasuan kasuko bilakaeraren arabera, adin-tartearen arabera, aurreko hamarkada guztieta edo soilik horietako batzuetako joerekin egin dira kalkuluak, igoera-jaitsera portzentualak aplikatzeko. Diagonalean egindako datuen azterketatik abiatuta, oro har, 2011tik 2021era izandako bilakaeraren joerak aplikatu dira etorkizuneko proiekzioak egiteko.

**5 | 19 urtera arteko adin-tarteetan, hizkuntza-koefizienteek izandako bilakaera aztertu, horizontalean.** Azterketa hori eginda, ikusi da, 19 urtera artekoetan, euskararen ezagutzaren portzentajea ehunera hurbiltzen den heinean, gero eta baxuagoa dela edizio batetik bestera dagoen igoera. Are gehiago, jaisten ere hasten da, zenbait adin-tartean, adibidez 5-9koen artean, abiapuntuko koefizientea 70etik gora dagoenean.

Euskararen ezagutza-mailaren abiapuntuko hizkuntza-egoeraren koefizientearen eta hurrengo hamar urteetan izandako bilakaeraren arteko korrelazioa aztertuz, korrelazio horri dagokion erregresio lerroa goranzkoa da hasieran, baina ez da zuzena, kurbatua baizik: zenbat eta gorago egon abiapuntuko egoera, orduan eta malda txikiagoa du. Eta behera ere egiten du, euskararen ezagutza-mailaren abiapuntuko ehuneko maila batetik gora dagoenean.

Errealitate hori aintzat hartzeko, euskararen ezagutzaren abiapuntuko ehunekoak 10eko tarteetan bildu dira (0-9,9, 10-19,9, 20-29,9...) eta tarte bakotzean kokatutako batez besteko igoerak kalkulatu dira. Adibide modura, hurrengo taulan, 2011tik 2021era, azken hamarkada horretan EAEn izandako batez besteko igoeren datuak ematen dira, adin-tartearen eta euskararen ezagutzaren abiapuntuko koefizienteen 10eko tarteen arabera.

## Adibidea

**34. taula.** EAEn biztanleriaren lurraldea, euskararen nagusitasun-eremua, adin-tartea eta jaioterriari jarraiki sailkatutako biztanleria-estratu bakoitzaren euskararen ezagutza-mailaren 2011ko abiapuntua, eta 2011tik 2021era izandako euskara mailaren koefizientearen batez besteko igoera (2tik 19ra arteko adin-tarteak)

Adin_tartea	Eusk % tartea 2011	Eusk %ren batez besteko igoera 2011tik 2021era
2-4	20-29,9	58,9
	30-39,9	21,7
	40-49,9	23,0
	50-59,9	18,5
	60-69,9	7,8
	70-79,9	8,4
	80-89,9	2,8
<b>2-4 Guztira</b>		<b>14,3</b>
5-9	0-9,9	81,3
	40-49,9	15,2
	50-59,9	13,0
	60-69,9	7,0
	70-79,9	-0,6
	80-89,9	-3,9
	90-100	-4,7
<b>5-9 Guztira</b>		<b>2,8</b>
10-14	40-49,9	23,6
	50-59,9	23,1
	60-69,9	13,7
	70-79,9	10,2
	80-89,9	6,6
	90-100	-2,7
<b>10-14 Guztira</b>		<b>5,7</b>

*Iturria: EUSTAT. Siadecok landua*

**6 | 74 urtetik gorakoetan**, berriz, abiapuntuko hizkuntza-koefizientearen eta hurrengo hamar urteetako bilakaeraren arteko korrelazioa ez da 19 urtera arteko adin-tarteetakoentzako; kasu honetan, abiapuntuko koefizientearen ehuneko tarte ia guztietarako, etorkizuneko bilakaera negatiboa da, eta beraz, bi aldagaien arteko korrelazio-lerroak, oro har, behera egiten du. Gero eta malda handiagoarekin egiten du behera, 50-59,9 koefiziente-tarteraino; hortik gora, oro har, malda txikiagoa du euskaldunen ehunekoaren jaitsieraren lerroak.

**7 | 19 urtera arteko adin-tarteetan, 2026ko hizkuntza-koefizienteak aurreikusteko, 2021eko berdinak erabiltzea dela zuzenena ikusi da**, hurrengo arrazoengatik:

- EAEko datuetan, 10-14 adin-tartean, 2021eko datuak hartuta, euskaldunen ehuneko oso altuak dira: %92,1 erkidegoan jaiotakoentzako, % 80,1 beste erkidegoan jaiotakoentzako eta % 75 atzerrian jaiotakoentzako. Eta hurrengo adin tartean, 15-19, % 93,1 , %69,7 eta %56,7 dira datuak, hurrenez hurren. 2011tik 2021era izandako igoerak, 2011ra arte izandakoak baino txikiagoak direla eta 2021eko euskara-indizeak altuak direla ikusita, indize horiek asko gora egiteko probabilitatea txikia da, eta 2021eko hizkuntza-koefizienteak erabili dira 2026ko proiekzioa egiteko.
- Euskararen Nafarroako koefizienteak nabarmen baxuagoak dira eta 2-14 urte arteko adin-tartean, adibidez, euskaldunen ehunekoak, igo egiten da 2001etik 2011ra, % 21,3tik % 27,6ra; ez ordea, 2011tik 2021era, 2021ekoak, %26,8 baita. Horrela, Nafarroan ere, 2021eko hizkuntza koefiziente berdinak aplikatu dira 2026ko proiekzioa egiteko, haur eta gazteen adin-multzoan.

**8 | 75etik gorakoetan, horizontalean eta diagonalean kalkulatutako joerak aplikatu dira.**

Adin-multzo honetan, diagonalean adin-kohorteak mugituz kalkulatutako hizkuntza-koefizienteak ez dira baliagarriak, hamarkada bat baino gehiagotako biztanleria, pilatuz doalako adin-multzo horretan. Horrela, 75etik gorakoentzako 2026ko hizkuntza-koefizienteen proiekzioa, bi modutara egin da, horizontalean eta diagonalean, biztanleria kopuruaren arabera hiztatuta, hau da, diagonalean adin-kohorte batetik bestera, hau da, 70-74 urte bitartekoentzako pisua, eta horizontalean, aurreko edizioan 75 urtetik gorakoentzako multzoan zeudenentzako pisua kontuan hartuta.

**9 | Adin-tarte bakoitzerako hizkuntza-koefizienteen bilakaera eta proiekziorako ehunekoak kalkulatu, lurraldea, nagusitasun-eremuak, adina eta jatorriaren arabera:**

- Lurraldea eta nagusitasun-eremuak:

**Araba:** etxeko erabileraaren arabera udalerriak sailkatuta, 1991ko sailkapenaren arabera, Aramaio izan ezik, Arabako gainerako udalerri guztiak lehen nagusitasun-eremuan daude kokatuak (etxeko erabilera euskara bakarrik gehi biak zati bi, %20 baino gutxiago), eta Aramaio laugarrenean (% 60-80 artean). Eta datuen anonimotasuna bermatu beharrez, Aramaikoak bakarrik diren datuen erabilerarik

egin ezin denez, Aramaio, nagusitasun-eremu bereko Gipuzkoako udalerrien multzoan kokatu da, bai Eustat-ek egin duen zentsuko datuen analisia egiteko, bai Siadecok lurraldeka eta nagusitasun-eremuari jarraiki egin dituen proiekzioak egiteko ere. Horrela, 1991ko nagusitasun-eremuaren arabera, 1991tik 2031ra egindako bilakaeraren azterketarako, Aramaio, Gipuzkoako laugarren nagusitasun-eremuko udalerriekin batera dago. Eta 2021eko nagusitasun-eremuari jarraiki egindako etorkizuneko proiekzioetarako, Aramaio, Gipuzkoako hirugarren nagusitasun-eremuko udalerriekin batera dago. Beraz, txosten honetan ageri diren kopuru absolutuetan emandako datu demografiko eta linguistikoetan, Aramaiok eragiten duen aldea dago. Horrela, Araban kalkulatu eta proiektatutako koefizienteak, nagusitasun-eremu bakarrekoak izan dira.

**Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa:** bakoitzean bost nagusitasun-eremu.

— Lurraldea, eremua, adin-tarteak eta jatorria:

**EAEn**, lurraldea eta nagusitasun-eremua gurutzatuta, guztira 11 taula dituen (Arabako bat eta Bizkaia eta Gipuzkoako 10) eta taula bakoitzak, bosturteko 16 adin-tarte, eta adin-tarte bakoitzak, jatorriaren araberako hiru lerro dituen, guztira 528 biztanleria-estratutako hizkuntza-koefizienteak kalkulatu dira.

**Nafarroan**, 5 nagusitasun-eremu, 5 adin-multzo, eta jatorriaren araberako hiru lerro, guztira, 75 estraturekin egin da lan.

**10 | Hiru hizkuntza-adierazleen guztira 11 kategoriatako hizkuntza-koefizienteak kalkulatu, biztanleria-estratu bakoitzerako:** lurraldea, nagusitasun-eremua, adin-tartea eta jatorriari jarraiki sailkatutako Hego Euskal Herriko 603 biztanleria-estratuetako bakoitzerako, hiru hizkuntza-adierazleetako 11 hizkuntza-kategorien ehunekoena hasierako proiekzioa egin da. 11 hizkuntza-kategoriak dira, euskararen ezagutzarenak hiru (euskaldunak, ia-euskaldunak eta eraldunak) eta lehen hizkuntza eta etxeko erabilera, hizkuntza-adierazle bakoitzeko launa (euskarra, biak, gaztelania eta besterik). Eta hizkuntza-koefiziente bakoitzaren hiru urteetako proiekzioa egin da, 2026rako, 2031rako eta 2036rako.

**11 | Hizkuntza-koefizienteak doitu:** 2011tik 2021era izandako igoera/jaitsieren bilakaera portzentualak 2021eko ehunekoari sistematikoki aplikatu ondoren kalkulatutako ehunekoak, logikoak ez direla ikusitako kasuetan, doitu egin dira. Hizkuntza-adierazle bateko kategoria bakoitzerako kalkulatutako ehuneko guztien baturak 100 ematen ez zuen kasuetan ere, ehunekoak doitu egin dira, gero, estratu bakoitzerako aurreikusitako biztanleriaren kopuru absolutuekin biderkatu aurretik.

# 03

## Proiekzio demolinguistikoa

2026, 2031 eta 2036rako proiektatutako biztanleriaren kopuru absolutuak, ehunekotan aurreikusitako hizkuntza-koefizienteekin biderkatu dira, hizkuntza-adierazle bakoitzaren kategoria bakoitzean zenbat biztanle izango dituen Hego Euskal Herriak jakiteko. Kopuru absolutuetatik abiatua, proiekzio demolinguistikoaren hizkuntza-koefiziente berriak kalkulatu dira gero, hurrengo prozedura jarraituta:

- 1 | Proiekzio demolinguistikoak egiteko aplikatutako metodologiaren lehen fasean, biztanleria-estratu bakoitzerako aurreikusitako biztanleria (kopuru absolutuak), bigarren fasean biztanleria-estratu bakoitzerako aurreikusitako hizkuntza-koefizienteekin (ehunekoak) biderkatu, 14 urtera bitarteko etorkizuneko belaunaldi berrietan izan ezik:**

15 urtetik gorako biztanleria-estratu bakoitzerako, aurreikusitako biztanleria aurreikusitako hizkuntza-koefizientearekin biderkatuta, zenbat euskaldun, zenbat erdaldun, zenbat...guztira 11 hizkuntza-kategorietako biztanleriaren kopuru absolutuak kalkulatu dira, proiekzio demografikoen aurreikuspenak eta proiekzio linguistikoen aurreikuspenak bateratuz. Modu horretara, jatorriaren arabera aurreikusitako hizkuntza-koefizienteetan aldeak badaude, eta biztanleriaren jatorriaren araberako kopuru absolutuetan aldaketak gertatuko direla aurreikusten bada, kopuru absolutuekin kalkulatutako adin-tarte horren etorkizuneko koefiziente berria aldatu egindo da.

- 2 | 14 urtera bitarteko etorkizuneko belaunaldi berrietan, gurasoen jatorriaren araberako proiekzio demolinguistikoak egin:**

2036 urtera arte jaioko diren 14 urte bitarteko belaunaldi berrien proiekzio demolinguistikoak egiteko, kontuan hartu da hurrengoa: beste erkidegoren batean eta bereziki atzerrian jaiotako Hego Euskal Herriko biztanle berrien seme-alabak ere “erkidegoan” jaiotakoak izango dira eta familia horien ezaugarri linguistikoak oso bestelakoak izango direnez, erkidegoan jaiotakoentzat aurreikusitako hizkuntza-koefiziente berdinak erabiltzea ez litzateke guztiz zuzena izango. Horregatik, 14 urte bitarteko hiru adin-multzoetan (2-4 urte, 5-9 urte eta 10-14 urte) erkidegoan jaiotakoak izango direnei, ez zaizkie erkidegoan jaiotakoentzat aurreikusitako hizkuntza-koefizienteak zuzenean aplikatu. Etorkizuneko belaunaldi berrietan, erkidegoan jaioko direla aurreikusitako 14 urte bitarteko haurren artean, hiru azpi-kategoria sortu dira: erkidegoan jaiotako gurasoen erkidegoan jaiotako seme-alabak; beste erkidegoren batean jaiotako gurasoen erkidegoan jaiotako seme-alabak; eta hirugarrenik, atzerrian jaiotako gurasoen erkidegoan jaiotako seme-alabak. Eta erkidegoan

jaioko diren haurren azpi-kategoria bakoitzeko kopuruuen aurreikuspenak egiteko, guraso izateko adin ohikoeneko biztanleriaren jatorriaren araberako banaketaren proportzio berak kalkulatu dira; guraso izateko adin ohikoena 30-39 urte bitartean egonik, 30-34 eta 35-39, bi adin-tarte horietako biztanleriaren jatorriaren araberako datuak erabili dira. Zehatzago, honela egin dira aurreikuspenak:

- 2026rako proiekzio demolinguistikoak egiteko, 2-4 urte bitarteko adin-tartean bakarrik bereizi dira erkidegoan jaiotakoentzako hiru azpi-kategoriatarako kopuruak. 2026an 2-4 urte bitarteko adin-multzoan kokatuko diren haurrek, 2022an, 2023an edo 2024ean jaiotakoak izango dira, eta gurasoen jatorriaren araberako banaketa egiteko, 30-39 urte bitarteko biztanleriaren 2021eko jatorriaren araberako datuak erabili dira.
- 2031rako proiekzio demolinguistikoak egiteko, 2-4 urte adin-tartekoetan eta 5-9 urte bitartekoetan ere kalkulatu dira erkidegoan jaiotakoentzako hiru azpi-katoria bakoitzeko kopuruak. 2-4 urtekoen kalkuluak, 30-39 urte bitarteko biztanleriaren 2026ko aurreikuspenen arabera egin dira; eta 5-9 urtekoenak, 30-39 urte bitarteko biztanleriaren 2021eko jatorriaren araberako banaketa jarraiki.
- Eta 2036ko proiekzio demolinguistikoak egiteko, 10-14ko adin-multzoa ere kontuan hartu da, erkidegoan jaiotakoak izango direnetatik, gurasoen jatorriaren araberako hiru azpi-kategorien kopurua aurreikusteko: 2-4 urtekoak, 2031ko 30-39 urteko bitarteko biztanleriaren banaketari jarraiki; 5-9 urtekoak, 2026ko datuei jarraiki; eta 10-14koena, 2021eko datuen arabera.

Eta erkidegoan jaiotakoak izango direnak, gurasoen jatorriaren arabera nola banatuko diren behin estimatutako, azpi-katoria bakoitzerako aurreikusitako biztanleen kopuruak, jatorriaren arabera biztanleria-estratu bakoitzerako aurreikusitako hizkuntza-koefizienteekin biderkatu dira, modu honetara:

- Gurasoak erkidegoan jaiotako familien seme-alabei, biztanleria estratu horretan “erkidegoa” jatorrikoentzat aurreikusitako hizkuntza-koefizientea aplikatu zaie.
- Gurasoak beste erkidegoren batean jaiotako familien seme-alabei, biztanleria estratu horretan “beste erkidegoa” jatorrikoentzat aurreikusitako hizkuntza-koefizientea aplikatu zaie.
- Eta, gurasoak atzerrian jaiotako familien seme-alabei, biztanleria estratu horretan “atzerria” jatorrikoentzat aurreikusitako hizkuntza-koefizientea aplikatu zaie.

- 3 | Nagusitasun-eremuaren araberako udalerrien multzokatze berria egin, etxeko erabileraren zentsuko datu eguneratuenetatik abiatuta:** nagusitasun-eremuaren araberako etorkizuneko proiekzio demolinguistikoak, udalerriak etxeko erabileraren zentsuko datu eguneratuenei jarraiki berriz sailkatuta egin dira, hau da, EAEko udalerriak etxeko erabileraren 2021eko datuen arabera multzokatuta, eta Nafarroakoak, etxeko erabileraren 2011ko datuetatik abiatuta. 1991tik 2021era, hizkuntza-koefizienteen bilakaera zein den aztertzeko, udalerriak 1991ko egoeraren arabera sailkatu badira ere, eta nagusitasun-eremu bakotzeko udalerrien multzo berdinak zer bilakaera izan duten aztertu, etorkizuneko proiekzioak egiteko, udalerrien nagusitasun-eremuaren araberako multzoak berritu egin dira. Hori eginda, EAEko udalerrietan etxeko erabileraren 2021eko datuekin, eta Nafarroan, 2011ko datuekin, Bizkaia eta Nafarroak bosgarren nagusitasun-eremuak (etxeko erabilera euskara gehi biak zati bi %80tik gora) galdu dituzte eta Gipuzkoak bakarrik eusten dio bosgarrenari, eta oso biztanle gutxirekin.
- 4 | Behetik gora, Hego Euskal Herri mailako proiekzio demolinguistikoak egin;** jatorriaren arabera adin-tarte bakotzarekin hasita, nagusitasun-eremu bereko adin-tarte guztiak, eta lurralte bereko nagusitasun-eremu guztiak; EAEko hiru lurralteak elkartuz, EAEko datuak, Nafarroa, eta azken urratsean, Hego Euskal Herria osoa.

# 04

## Hipotesiak

Honako hau ez da 2036an gertatuko denaren aurreikuspen bat. Baizik eta proiekzio demolinguistikoa egiteko erabilitako hipotesiak betez gero, urte horretan izango genukeen egoera demolinguistikoa irudikatzeko ariketa bat. Erabilitako metodoaren lehen fasean demografia proiekzioak egiteko, eta bigarren fasean hizkuntza-koefizienteen proiekzioa egiteko, hurrengo hipotesiak erabili dira:

### (a) Demografia proiekzioen hipotesiak:

1. INEren “*Población y fenómenos demográficos – resultados por provincias: serie 2024-2039*” informazio-iturriko demografia proiekzioak bete egingo dira, 2026, 2031 eta 2036 urteetan, hemendik data horietara arte gertatuko diren jaiotzei, heriotzei eta migracio-fluxuei dagokienean, zehazki datu hauekiko:
  - Hego Euskal Herriko lurralte bakotzean, bosturteko adin-tarte bakotzerako aurreikusitako biztanleria.
  - Lurraldearen arabera, biztanleria osorako aurreikusitako jatorriaren araberako aurreikuspenak, “Spainian/atzerrian” banaketari jarraiki.
2. Hemendik urte horietara adin-multzo bakotzeko biztanleriaren jatorriaren araberako banaketan gertatuko den bilakaera, 2006tik 2023ra izandakoaren parekoa izango da, adin-multzo bakotzaren barruan atzerritar/españiarren arteko banaketan antzematen diren joerak bere horretan jarraituko du 2023-2036 bitartean. Horrela, adibidez azken urteetan biztanleria atzerritarraren pisua gehiago igo den adin-multzoetan, etorkizunean ere gehiago igoko da.
3. INEren lurraldetako proiekzio-demografikoetan, Spainian jaiotakoak izango direnen “erkidegoan jaioak” edo “beste erkidegoren batean jaioak” banaketa, 2021eko berdina izango da, bosturteko adin-kohorteen ehunekoak diagonalean mugituta. Adibidez, 0-4 urtekoen 2021eko banaketa, 2026an, 5-9koena izango da, 2031n 10-14koena eta 2036an, 15-19koena.

4. Etxeko erabilerari jarraiki sailkatutako nagusitasun-eremuaren araberako udalerri-multzoen biztanleriaren adina eta jatorriaren araberako oraingo egitura demografikoa berdina izango da etorkizunean ere, hau da, nagusitasun-eremu bakoitzeko biztanleriaren adina eta jatorriaren araberako proportzioak, mantendu egingo dira 2026, 2031 eta 2036 urteetan ere, nahiz eta biztanleriaren kopuru absolutuak aldatu.

**(b) Hizkuntza-koefizienteen proiekzioen hipotesiak:**

1. **Hipotesi orokorra:** lurraldetik, nagusitasun-eremu, adin-multzoa eta jatorriaren arabera bereizitako biztanleria-estratu bakoitzean, hiru hizkuntza-adierazleek bakoitzaren (ezagutza, lehen hizkuntza eta etxeko erabilera) hizkuntza-koefizienteek azken urteetan eta bereziki 2011tik 2021era izandako bilakaera, mantendu egingo da hurrengo urteetan ere. Horrela, alderdi demografikoek gain, hizkuntzari eragiten dioten gainerako faktore guztiak 2021ko parametro beretan jarraituko dute 2021-2036 bitartean. Eedu honetan ez dira kontuan hartu, biztanleriaren zahartzeaz eta migrazio-fluxuez gain gertatuko diren beste aldaketak, eta aldaketa horiek ezagutzan, hizkuntzaren transmisioan eta etxeko erabileran izango dituzten ondorioak; hala nola: teknologiari eta kultur kontsumoari dagokionez mundu mailan eta Euskal Herrian gertatzen ari diren joerak, hizkuntza politiken norabidea eta indarra, euskararen aldeko mugimenduaren dinamika eta eragina, hiztunen jarrera eta ohituren aldaketak eta hizkuntza-egoeran eragin dezakeen beste edozein faktore.

**2. Hipotesi zehatzagoak:**

- a) 19 urtera arteko adin-tarteetan, lurraldetik, nagusitasun eremu eta jatorriaren araberako hiru hizkuntza adierazleen hizkuntza-koefizienteen 2021ko ehunekoak bere horretan mantenduko dira, oro har. Horrela, hizkuntza-koefiziente horien balioak bilakaera demografikoaren ondorioz soilik aldatuko dira, aurreikusitako biztanleriaren kopuru absolutuekin biderkatu ondoren, hau da, biztanleria-estratu bakoitzak izango duen biztanleriaren bilakaeraren arabera.
- b) 2036 urtera arte erkidegoan jaioko diren 14 urte bitarteko belaunaldi berrien hizkuntza-koefizienteak, gurasoen jatorriaren araberakoak izango dira. Horrela, erkidegoan jaiotako gurasoen seme-alaben hizkuntza-koefizienteen ehunekoak, erkidegoan jaiotako adin-tarte horretako 2021eko hizkuntza-koefizienteen berdinak izango dira eta, aldiz, atzerrian jaiotako gurasoen seme-alabenak, atzerrian jaiotako 2021eko hizkuntza-koefizienteetara hurbilduko dira. Eta jaioko diren haur horien gurasoen

jatorriaren araberako banaketa, 30-39 urte bitarteko biztanleriaren jatorriaren araberako banaketaren parekoa izango da.

- c) 20tik 74 urtera bitarteko adin-multzoen hizkuntza-koefizienteak, biztanleria-estratu bakoitzaren 2021eko ehunekoari, 2021 urtera arteko joeren igoera edota jaitsierak aplikatu ondoren kalkulatutako balioen araberakoak izango dira, bosturteko bakoitzaren hizkuntza-koefizienteak diagonalean mugituz, hau da, 20-24 urtekoen 2021eko balioa, 2026an 25-29koena izanik, 2031n 30-34koena eta 2036an 35-39koena.
- d) 75 urtetik gorako biztanleriaren hizkuntza-koefizienteak, berriz, biztanleria-estratu bakoitzerako, horizontalean eta diagonalean egindako kalkuluen arabera estimatutako balioen araberakoak izango dira. Kalkulu horiek nola egin diren, erabilitako metodologiaren bigarren faseko azalpenetan dago jasoa.
- e) Alderdi demografikoez gain, hizkuntzari eragiten dioten gainerako faktore guztiekin 2021ko parametro beretan jarraituko dute 2021-2036 bitartean. Horrela, eredu honetan ez da kontuan hartuko honako alderditan gertatuko diren aldaketak eta aldaketa horiek ezagutzan, transmisioan eta erabileran izango dituzten ondorioak:
  - Teknologiari eta kultur kontsumoari dagokionez mundu mailan eta Euskal Herrian garatzen ari diren joerak.
  - Hizkuntza politiken norabidea eta indarra.
  - Euskararen aldeko mugimenduaren dinamika eta eragina.
  - Hiztunen jarrerak eta ohitura.
  - Ez da aldatuko hizkuntza-egoeran eragin dezakeen beste edozein faktore.



## 4. PROIEKZIO DEMOGRAFIKOAK

## **4.1. PROIEKZIO DEMOGRAFIKOEN IRAKURKETA**

### **4.1.1. BIZTANLERİAREN PROIEKZIO OROKORRA**

Hego Euskal Herriko biztanleriak —Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa— hazten jarraituko du, baina hazkunde hori moteldu egingo da datozen urteetan: 2.570.236 biztanle zituen 2001ean, 2.817.405 biztanle 2021ean eta, proiekzio demografikoen arabera, 2.981.776 biztanle izango ditu 2036an (*27.grafikoa eta 35.taula*).

Nafarroako hazkunde demografikoa EArena baino handixeagoa izango da, ondorioz, Hego Euskal Herriko biztanleriarekiko duen pisua handitu egingo da 2021etik 2036ra: % 23,2tik % 24,6ra. Nafarroak 600.000 biztanleak gainditu zituen 2000ko hamarkadaren amaieran, 700.000 biztanleak gaindituko ditu 2020koaren amaieran eta, proiekzio demografikoen arabera, 734.875 izango ditu 2036 urtean. EAeko biztanleria 2.200.000 biztanleren bueltan dabil eta hala jarraituko du datozen hamabost urteetan ere: 2.163.121 biztanle 2021ean eta, proiekzioen arabera, 2.246.901 biztanle 2036an (*35.taula*).

### **4.1.2. BIZTANLERİAREN PROIEKZIOA ADINAREN ARABERA**

Adinari dagokionez, biztanleriaren zahartze-prozesuak aurrera jarraituko du, 65 urtetik gorakoen biztanle-multzoak goranzko joera nabarmenari eutsiko diolako: 637.291 biztanle 2021ean (biztanleriaren % 22,6) eta, proiekzioen arabera, 834.023 biztanle 2036an (% 28,0). Nolanahi ere, goranzko joera hartuko duen beste adin-tartea 25-44 urte artekoena da: 684.798 biztanle 2021ean eta 724.767 biztanle 2036an. Kasu honetan, itxura guztien arabera, migrazio-prozesuen eraginez. Biztanleriarekiko pisua mantendu egingo du multzo horrek (% 24,3), gainerakoek ez bezala (*28.grafikoa eta 36.taula*).

#### **4.1.3. BIZTANLERİAREN PROIEKZIOA JATORRIAREN ARABERA**

Jatorriaren araberako bilakaeran ere ikusten da migrazio-prozesuen eragina. Izañ ere, atzerrian jaiotakoek pisuak modu nabarmenean egingo du gora: 361.875 biztanle 2021ean (biztanleriaren % 12,8) eta 692.467 biztanle 2036an (biztanleriaren % 23,2) (29.grafikoa eta 37.taula). Gainera, eremu administratiboen araberako alderaketa eginez, are handiagoa izango da eragin hori Nafarroan: atzerrian jaiotako 115.585 biztanle 2021ean (biztanleriaren % 17,7) eta 205.103 biztanle 2036an (biztanleriaren % 27,9) (36.grafikoa eta 58.taula) —EAEn: 246.290 biztanle 2021ean (biztanleriaren % 11,4) eta 487.364 biztanle 2036an (biztanleriaren % 21,7)— (33.grafikoa eta 47.taula).

Estatuko gainerako erkidegoetan jaiotakoek kopuruak daraman beheranzko joera areagotu egingo da: 679.524 ziren 1991n (biztanleriaren % 26,3), 485.646 ziren 2021ean (biztanleriaren % 17,2) eta, proiekzioen arabera, 310.553 izango dira 2036an (biztanleriaren % 10,4) (29.grafikoa eta 37.taula).

Jatorria eta adina gurutzatzuz, azpimarratzeko modukoa da 25-44 urtekoen artean dela altuena atzerrian jaiotakoek pisua. Eta adin-tarte horretan areagotuko dela gehien, gainera: 2036an 25-44 urtekoen % 44,4 izango da atzerrian jaioa (321.699 biztanle), Hego Euskal Herrian (39.taula) —are gehiago Nafarroan, % 51,4 (60.taula)—. Ugalkortasun-adinean edo guraso izateko adinean dagoen biztanleria da hori, horrek haurren eta gaztetxoen adin-tarteetan duen eraginarekin.

#### **4.1.4. BIZTANLERİAREN PROIEKZIOA NAGUSITASUN-EREMUAREN ARABERA**

Euskararen etxeko erabilera-mailaren arabera eraikitzen diren nagusitasun-eremuen<sup>1</sup> azterketa bat eginez, ondorio nagusia da muturretako, euskararen erabilera handieneko eta txikieneño udalerrietan bizi den biztanleria modu nabarmenean murriztu dela.

Batetik, 5.nagusitasun-eremua —euskararen etxeko erabileraaren indizea % 80tik gora duten udalerriak— ia desagertu egin da. Baina ez udalerri horiek biztanleria galdu dutelako, etxearen euskara erabiltzeko ohiturarik ez duten biztanle berriak jaso eta erabilera horrek behera egin duelako baizik. Izañ ere, 1991ko sailkapena mantendu eta 2021era arteko bilakaera aztertz, 1991n 5.eremuan zeuden udalerriek biztanleria irabazi dute —71.780 biztanle izatetik 78.969 izatera—. Aldiz, 2021eko etxeko erabileraaren datuen arabera nagusitasun-eremuen sailkapena eguneratuz, 5.ean 1.074 biztanle besterik gelditzen ez direla ikus daiteke (30.grafikoa eta 40.taula).

---

<sup>1</sup> Nagusitasun-eremua: euskararen etxeko erabileraaren 1991ko indizearen arabera —indizea honela kalkulatua: euskara gehi, biak, euskara eta gaztelania, zati bi—, bost nagusitasun-eremuren arabera sailkatutako udalerri multzoen araberako analisia egin da, udalerriak, 1991tik 2021era, multzo berean mantenduz.

